

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko azaroaren 12ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Foru dekretuak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa. Onestea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneko eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa. Onestea Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 703/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko diputatuen bateragarritasunari buruzko adierazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 704/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Arabako Batzar Nagusiek pertsona fisikoen errentaren gaineko, ondarearen gaineko, ondare eskualdaketen gaineko eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak aldatzeko foru arau proposamena aintzat hartzearen aurkako irizpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 705/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Arabako Kalkulu Gunea, AB sozietateko zuzendari-Kudeatzailea izendatzeko proposamena.

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 706/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Data Base Storage SL sozietateari esleitzea irailaren 3ko 544/2019 Erabakiaren bidez iragarri zen esparru akordioa, zeinaren helburua baita zerbitzu emaile bat homologatzea, segurtasun kopien plataforma komuna Commvault backup software lizentziaz hornitzeko eta haiek mantentzeko, hitzarmena formalizatzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arte.

Foru Gobernu Kontseiluaren 707/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Versia Contact Center SA sozietateari esleitzea 455/2019 Erabakiaren bidez iragarri zen telefono deien zerbitzua, orduko 15,58 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta bi urteko gauzatze epearekin.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 708/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Behin betiko onestea Lezako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 709/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Behin betiko onestea Samaniegoko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 710/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta, 2019ko urtekoa 2020an banatzeko 42/2019 konpromiso kredituaren espedientea, 538.259,70 euroko zenbatekoan, "Tranbiaren hegoaldeko luzapena: AKK" izeneko gastuen egoeraren partidan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 711/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Lurralde Oreka-ren Sailak hala eskatuta, kreditu transferentziako 149/2019 espedientea, 98.334,74 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Espejoko SISEUa handitzea" izeneko hobekuntza partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 712/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Lurralde Oreka-ren Sailak hala eskatuta, kreditu transferentziako 150/2019 espedientea eta baliogabetze bajaren 12/2019 espedientea, 62.865,46 eta 12.865,46 euroko zenbatekoan, hurrenez hurren, funtsez hornitzeko "Administrazio elektronikoa garatzea" izeneko partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 713/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta, kreditu transferentziako 159/2019 espedientea, 5.566,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Katastroko planoak inprimatzeko ekipoak" izeneko partida berria.

Foru Gobernu Kontseiluaren 714/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka-ren Sailak hala eskatuta, kreditu transferentziako 162/2019 espedientea, 54.002,4 euroko zenbatekoan, "Kreditu orokorra" izeneko partidarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 715/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak hala eskatuta, 163/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 54.002,49 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Enpresen eta profesionalen beste lan batzuk" izeneko partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 716/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta, kreditu transferentziako 164/2019 espedientea, 75.000,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Komunikazioa" izeneko partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 717/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta, aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, Dulantzin ur biltegia eraisteko eta berria eraikitzeko proiektuko gastu eta diru-sarrera partidetan aurrekontu doikuntzak egiteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 718/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onespina ematea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskatuta, "Saratxon A-625 egokitzea" partidarako aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, aurrekontu esleipena obren gauzatze abiaduraren arabera doitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 719/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hala eskatuta, kreditua transferitzeko 9/2019 espedientea, 295.000,00 euroko zenbatekoan, "Posta eta zigiluak", "Erabiltzaileen garraioa kontratatzea" eta "Kanpoko beste hainbat zerbitzu" izeneko partidak funtsez hornitzeko.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 720/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea, Aguraingo Udalak, AMVISAK eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoak hala eskatuta, epea luzatzea deposituak PRELOAD teknologiarekin berreraikitzeke obrak gauzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 721/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea estatuko gaikuntzako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko 2019ko lehiaketa bateraturako deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 722/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Apellániz/Apinaiz kontzejuari Apellániz/Apilaiz izena jartzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 723/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Guillerna/Gilierna kontzejuari Gillerna izena jartzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 724/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Vírgala Mayor/Birgara Goien kontzejuari Vírgala Mayor/Birgaragoien izena jartzea, eta Vírgala Menor/Birgara Barren biztanleguneari Vírgala Menor/Birgarabarren izena jartzea.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 725/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea "2019-2020 kanpainako neguko bidezaintza programa operatiboa".

Foru Gobernu Kontseiluaren 726/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Euskal Trenbide Sarearekin egindako hitzarmeneko izendapenak egokitzea, Angulema-Unibertsitatea tartean Gasteizko tranbiaren hegoaldeko luzapena finantzatu eta eraikitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 727/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onespina ematea esleipen aurrekontua obren gauzate abiaduraren arabera doitzeari proiektu honetan: "A-625 errepidea 357,30 KPtik 354,22 KPra (Bizkaiko muga) egokitzeke eraikuntza proiektu aldatua".

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 728/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea apirilaren 2ko 231/2019 Erabakiaren bidez 2015-2020 plangintzaldirako onartu zen Landa Garapenerako Planaren nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntzen 2019ko deialdiaren ebazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 729/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea espedientea has-tea, Arrato ureztatzaileen erkidegoak 2018an ureztatze sareko 29. adarreko tutua ordezkatzeko jasotako dirulaguntzaren zati bat itzul dezan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 730/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Bilarreko Udala-rekin 338 zenbakiko partzuergoa eratzea, bai eta partzuergoaren azaleran basoa leheneratzeko proiektua ere.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 731/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea "Dulantziko ur biltegia eraitsi eta berria eraikitzeke proiektua" gauzatzeko obren epea luzatzea, bai eta birba-naketa ekonomikoa eta lanen programa ere.